



"Mundua ez da mugituko
gu mugitzen ez bagara"

Parte-hartzailea eta aldarrikatzailea izan da Martxoaren 8a / 8-11

AIURRI

KORRIKA, egun gutxi barru

Urrietako KORRIKA batzordeak egitarau aberatsa prestatu du, asteburuan hasita / 4-6

Haur eta gaztetxoek
arteko lasterketak
abiatu dira, Andoaingo
Txirrindulari Eskolaren
eskutik / 12

Sindicato Andaluz
de Trabajadores/as
sindikatu
ordezkarien hitzaldia,
Urrietan / 2

“Etorkizuna
diseinatzen:
LH, aukeraz
beteriko
bidea”

Mahai-ingurua Andoainen
18:00, Bastero Kulturgunea
Martxoak 16, astelehena

- **Aztergaiak:** Lanbide Heziketaren balioa, lan-irteerak eta etorkizuneko aukerak.
- **Hizlariak:** Maite Lizartza, Hezkuntza Saileko ikuskaria; Natalia Gaston, iTlent LHko Talentuaren Euskal Institutuko ikertzailea; eta, Oier Urkola eta Joanes Agirre, ikasle-ohiak.
- **Moderatzailea:** Maria Meijide, Hezkuntzako ikuskari burua.
- **Streaming bidez:** www.andoain.eus.



Lankidetza, Aurrera Markelekin eta Super H elkarteekin

Urnietako Udalak inklusibitatea sustatzen duten herriko taldeekin hitzarmen bana sinatu du

Erredakzioa URNIETA

Haur onkologikoei edo gaixotasun larriei eta haien familiei gaixotasunaren prozesuan eta ondoren laguntzeko lan egiten du Super H elkarteak. Era berean, gaixotasun onkologikoen kausei

eta tratamenduari buruzko ikerketa-proiektuak babesten ditu, bereziki haurren minbizia, eta herritarrak sentsibilizatzeko ekintzak antolatzen ditu. Udalak bi lokal utzi dizkiola iragarri du. Bat Errekalde 1ean dago eta

bertatik elkartearen kudeaketa egingo dute. Bestea, Errekalde 12an dagoena, biltegi modura erabiliko dute.

Aurrera Markelekin elkarteak GNA01 diagnostikatutako garapena babestea du xede, alor guztietan: haien garapen pertsonala sustatuz, bai maila fisikoan, bai hezkuntza, lan eta gizarte mailan. Baita, GNA01en ikerketa babestea ere. Udalak Errekalde 12ko lokal bat utzi dio biltegia bertan antolatu dezaten.



Iñaki Baños Aurrera Markelekin elkartearen lehendakaria, Consuelo Frutos Gizarte Zerbitzuaren zinegotzia eta Almu Salas Super H elkartearen presidentea. UDALA

KOMUNITATEA

SALESIAK IKASTETXEA URNIETA

Lau ikasle, robot bat... eta etorkizuna eraikitzen

Gure ikastetxeko 2. Batxilergoko lau ikasleek Valladoliden ospatutako Asti Robotics Challenge lehiaketako finalerdietan parte hartu dute, robotika, sormena eta talde-lana uztartzen dituen nazio mailako topaketa garrantzitsu batean.

Esperientzia aberasgarria izan da guztientzat. Parte-hartzaileek aukera izan dute ideiak partekatzeko, beste ikastetxeetako ikasleekin elkarlanean aritzeko eta teknologiaren inguruko ezagutzak sakontzeko. Giro aparta sortu da lehiaketan zehar, non ikaskuntza, ilusioa eta berrikuntza eskutik joan diren. Gure taldeak bere robot prototipoa aurkeztu du, azken hilabeteetan egindako lan, dedikazio eta ilusioaren emaitza. Proiektu honek ikasleen konpromisoa, gaitasun teknikoak eta arazoei irtenbide berritzaileak bilatzeko duten gaitasuna agerian utzi ditu. Gainera, bada bereziki azpimarratu nahi dugun xehetasun bat: taldea lau emakumez osatuta dago.

Gertakari honek balio berezia du, izan ere, STEAM arloetan emakumeen presentzia eta bokazioak sustatzeko pausu txiki baina esanguratsua da. Halako esperientziek talentu gaztea ikusarazten dute eta etorkizuneko zientzialari, ingeniari eta sortzaile berriei bidea irekitzen diete.

Orain, emaitzaren zain gaude finalera pasatuko garen jakiteko. Ea laster albiste onak partekatzeko aukera dugun! Zorionak gure ikasleei egindako lan bikainagatik. Harro gaude zuekin!



SALESIAARRAK

Andaluziako borroka sindikala, gertutik

Andaluziako nekazari eta langileen errealitatea izan zuten hizpide SATeko sindikalistek, LABek antolatutako hitzaldian. Sindikatuko Pepe Caballero idazkaria eta Oscar Reina bozeramailea hizlari aritu ziren Lekaion

Xabier Lasa URNIETA

SAT Sindicato Andaluz de Trabajadores/as sindikatuko Pepe Caballero idazkariak eta Oscar Reina bozeramaileak andaluziarren eguneroko lan eta bizi baldintzen xehetasunak eman zituzten LAB sindikatuak antolatutako hitzaldian. Klase kontzientzia, antikapitalismoa eta nazionalismo andaluziarra dira SAT sindikatuaren ardatzak, eta nekazari zein langileen lan baldintzak hobetzeko ekintza zuzena da bere eguneroko jardunetako bat. Lan munduko hainbat sektoretako ezkertiarrek sortu zuten sindikatua 2007an, bi hizlariak adierazi zuten.

Marinaleda herrian (Sevilla) 1979an eredu sozioekonomiko kolektibista eta ezkertiarra ezarri zuen SOC (Sindicato de Obremos del Campo) eta Juan Manuel Sanchez Gordillo hango alkatea izan ziren SATen sortzaileetako batzuk. Landa-inguruko jorنالarien eta, bereziki, lurrik gabekoen interesak defendatzen zituen, eta SATek horienak ez ezik gain, eremu urbanokoen langileen aldarrikapenak ere hartu zituen bere gain.

Caballerok eta Reinak adierazi zuten SAT nekazarien eremuan dabilela sendo; eremu urbanoko langileen artean, berriz, orain-



Oscar Reina bozeramailea eta Pepe Caballero idazkaria, Urnietan. AIURRI

dik ere eragin handiegirik ez eduki arren, poliki-poliki hazten ari dela bere presentzia, gehitu zuten. Hazkunde horren adierazletzat jo zuten orain hilabete batzuk Sevillako Diputazioan egindako hauteskundeetan sindikatu nagusia bilakatu izana.

Ekintza zuzena eta desobediencia dira beren jardunbide nagusienak. Alde horretatik, gogoratzekoa da Ecijan (Sevilla), Arcos de la Frontera (Cadiz) eta beste zenbait herrietan saltokikate handietan egin izan dituzten “elikagaien espropiazioak”, bizitzaren gehiegizko garestitzea eta familia askoren pobrezia-egoera salatzeak. Bi sindikalistek Urnietan zehaztu zuten,

atxiloketak, jipoiak, epaiketak, kartzela-zigorak eta isun ekonomikoak eragin izan dizkie halako ekintzek SATeko kideei. Horren adibide garbia izan daiteke Oscar Reina. “Bederatzi aldiz kartzelatu dute, European dagoen sindikalistarik errepre-saliatuena” dela esan zuen Caballerok.

“Andaluzian bere horretan dirau injustizia historikoak, %2 lurraren %50aren jabe dira oraindik. SATko kideak Andaluzian ohikoak diren “peonada” tara (nekazaritzako lanaldi oso bat) joan ohi dira, eta bertan lanean ari diren jorنالarien bizi baldintzak aztertzen eta salatzen dituzte.

POSTONTZIA

GREBA BATZORDEA ANDOAIN, URNIETA

Martxoaren 17an, Andoain eta Urnieta grebara!!



Greba deialdia antolatzen ari diren hainbat eragile, Andoainen. AIURRI

Andoaingo eta Urnietako Greba Batzordeen adierazpena: Patronalak ez du gutxieneko soldata duinik nahi Hego Euskal Herriko langileontzat eta uko egin dio sindikatuek zabaldu nahi izan duten negoziazio mahaiari. Nafarroako parlamentuko mahaiari eta EAEn –EAJk zein PSEk– atea itxi diote 140.000 herritarren sinadurek babestutako Herri Ekimen Legegileari, gobernuen eta patronalen arteko aliantza sendoa agerian utziz. Bizitza etengabe garestitzen ari da baina soldatak ez dira neurri berean igo. Langileok eros ahalmena galdu dugu eta, geroz eta pertsona gehiago pobretzen ari da, bereziki,

emakume, gazte eta migratutako pertsonak. Ez dugu onartuko Euskal Herrian zein Andoainen edo Urnietan, inork bizitza duinerako nahikoa diru sarrera ez izatea, gutxi batzuk irabazi errekorrak dituzten bitartean. Euskal herriko errealitatera egokitutako gutxieneko soldata behar dugu eta, horregatik, Greba Orokorrera goaz!!
Martxoaren 17rako hainbat ekimen izango dira eta, Andoaingo eta Urnietako biztanle orori dei egin nahi diegu horietan parte hartzera.

URNIETA

11:30 Anoetako estadiotik abiatuko den zutabera joko dugu, Donostiako

manifestazioarekin bat egiteko.

18:30 Hernanin, Floridako San Jose obrero elizatik, manifestazioa hasiko dugu.

ANDOAIN

06:00 Piketeak Industriguneetara.

11:30 Anoetako estadiotik abiatuko den zutabera joko dugu, Donostiako manifestazioarekin bat egiteko.

18:30 Goikoplazatik Zumeara, manifestazioa.

Martxoaren 17an Urnieta eta Andoain grebara!!

Gutxieneko soldata hemen erabaki. LGS 1500 euro, aberastasuna banatzeko.



Igara espazioa, Andoainen. AIURRI

Asanblada deitu du Buruntzaldeko Kontseilu Sozialistak

Eskualdean hainbat eragile ari dira greba orokorraren antolaketan. Martxoaren 17ko Greba Orokorraren harira, Buruntzaldeko Kontseilu Sozialistak bigarren asanblada deitu du, ohar bidez azaldu dutenez, "grebaren lanketarekin jarraitzeko. Igande honetan izango da, martxoak 15, eguerdiko 12:00etan hasita Andoaingo Eskola kaleko Igara Espazioan".

"Bidasoatik harago" ikuskizunaren sarreraren zozketa

Aiurri astekariak zozketa abiatu zuen, aurreko astean, "Bidasoatik harago" ikuskizunaren baitan. Ostiral honetako ikuskizunaz gozatzeko bi sarrera zozkatu ziren eta irabazlea Elena Mujika Gaztañaga izan da. Zorionak eta ondo pasa! Saria lortu ez dutenek 10 euroko prezioan eros dezakete sarrera, egunean bertan.



Igogailu berria. AIURRI

Ama Kandida eta Pio Baroja Kalea lotzen dituen igogailua

Erabilgarri dago Ama Kandida eta Pio Baroja Kalea lotzen dituen igogailua, 05:30-23:00 arteko ordutegian. Udalak irisagarritasunean eragingo dituen onurak nabarmendu ditu: "azpiegitura berri honi esker, Plaza Nafarroa ingurua eta adinekoen egoitzaren eta auzoko bizilagunen eremua modu erosoagoan konektatuko dira. Irisgarritasuna nabarmen hobetuko da"

Amenabar auziaz oharra argitara eman du Andoaingo Udalak

Andoaingo Udalak Amenabar-Zabalgunea auzia bideratu izana hizpide izan du: "Udalak poza adierazi nahi du kaltetutako herritarrei dirua itzultzeko hartu duen erabakiagatik. Lehen-tasuna orain ordaindu dutenei dirua ahalik eta azkarren, eta, berme guztiekin itzultzea da. Epaitegiak erabaki beharko du nork eta nola itzuli diru hori".

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Etxez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 55 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain.
Tel.: 943 300 732.
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Lide Ruiz Telleria.
Maketatzailea: Maddi Trubuelo.
Kudeaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnietan).
Diseinua: Goiena / TOKIKOM.
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ
ALJATUAK: HISTORRE, TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA
URNIETAKO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENAK:
Gipuzkoako Foru Aldundia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Egitarau oparoa, KORRIKA ardatz hartuta

Kultur eta gizarte mailako hamabostaldia iragarri du AEK euskaltegiak. Egitaraua oparoa da eta horren lanketa giltzarri izan dira Urnietako hainbat eragile. Ostegunean hasita, euskarari eta Korrikari loturiko hitzorduek hartuko dute protagonismoa

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Bidelagun ugari ditu Korrikak Urnietan: Egape Dantza Taldea, Udal Musika Eskola, Manttale, Mintzalagunak, Korrika Batzordeko kideak... eta denen artean egitarau aberatsa ondu dute. KORRIKA murgiltzeko hilabetea izango da martxoa, beraz.

Ostegun honetan, Denda Berrin, egitasmo guztien aurkezpena egingo dute. Eta, ostiralean, Bidasoatik Harago ikuskizuna izango da Salesiar ikastetxearen areto nagusian.

Haurrak eta gazteak aintzat hartu dituzte, egitarauan. KORRIKA gauez igaroko baita, baina gaztetxoentzat KORRIKA TXIKIA izango da martxoaren 27an. Eta, lehenago, hilaren 22an, dantza, musika eta magia emanaldia. Iago Azkue magoak saioa egingo du Urnietan, Udalarekin lankidetzan antolatutako ekitaldian. Magoak horrela definitu zuen magia, Goienna hedabidean: "Esku-jokoekin eta trebetasunarekin egiten den zerbait da magia. Denok dakigu horren guztiorren atzean sekretu bat dagoela, baina magia sekretu horren gainetik dagoen zerbait da, publikoari erakusten ez zaiona, misterio puntu batekin. Azken finean, ezinezko gauzak posible egitea da".



Bertsu-pilota saioa, iaz, Urnietako Euskaraldian. Saio berria laster da. AIURRI



Iago Azkue gazteak magia ekarriko du Urnietara. KATAPULTA

Sorterrian ariko da Garmendia, ostiral honetan

"Bidasoatik harago" ikuskizuna birak geldialdia izango du Urnietan, ostiral honetan, Salesiar ikastetxean

Erredakzioa URNIETA

Korrikaren baitan aurkeztu duten egitarau oparoan, bada data seinalatua bi euskal artista eza-gunentzat. Musikagintzan ibilbide oparoa egin dute Jon Garmendia urnietarrak eta Xabier

Solano hernaniarrak. "Bidasoatik harago" ikuskizuna Euskal Herrian barrena aurkezten ari dira eta birak, oraingoan, geldialdia egingo du Urnietan. Hain zuzen, Jon Garmendia idazlearen sorterrian.

Auzolanean antolatu da Urnietako emanaldia. Korrika Batzordea, AEK, Manttale eta Aiurri elkarlanean antolatzen ari dira. Emanaldia martxoaren 13an izango da Salesiar ikastetxearen areto nagusian, iluntzeko 19:30ean hasita.

Urnietan Bikain kafetegian eta Kantoi eta Matxo tabernetan salgai daude sarrerak, 10 euroko prezioan. Andoainen, berriz, Stop eta Ernaitza liburudendetan. Egunean bertan salgai jarriko dituzte azken sarrerak.

KORRIKA URNIETAN

MARTXOAK 12

OSTEGUNA

18:00 Denda Berri. Egitarauaren aurkezpena, Mintzalagunen mezua eta Korrika jolasa Plazido Muxika plazan.

MARTXOAK 13

OSTIRALA

19:30 Salesiar ikastetxeko areto nagusia. "Bidasoatik harago", Jon Garmendia & Xabier Solano: Ipuin laburrak eta poemak, trikitixa eta gitarrarekin lagunduta. Salgai daude sarrerak: Urnietan, Bikain kafetegian eta Kantoi eta Matxo tabernetan. Andoainen, berriz, Stop eta Ernaitza liburudendetan. 10 euroko prezioa.

MARTXOAK 22

IGANDEA

18:00 San Juan plaza. Egape Dantza Taldearen eta Musika Eskolako emanaldia.

19:00 Iago magoaren saioa. Eguraldi txarrarekin, Saroben.

MARTXOAK 23

ASTELEHENA

18:00 San Juan plaza. Kalejira: Kantazaun eta Musika Eskola.

19:30 Pilotalekua. Bertsu-pilota saioa.

21:30 San Juan plaza. Herri-afaria, bingo musikatua. Eguraldi txarrarekin, Egapen. Izen-ematea zabalik, martxoaren 15era arte. Frontoin eta Matxon, 2 euroren truke. Nork bere afaria eramango du etxetik.

01:00 KORRIKA! Andoaindik barrena iritsiko da Urnietara.

MARTXOAK 26

OSTEGUNA

19:00 Matxo. Korrika ardoen dastaketa, Biba ardoak adituen eskutik.

MARTXOAK 27

OSTIRALA

10:00 Kandela tabernatik abiatuta, KORRIKA TXIKIA.



Garmendia eta Solano. BIDASOATIK HARAGO



Urnietako AEK euskaltegiko kideak. AIURRI

"Batzordean ondutako egitaraua aurkeztuko dugu"

AMAIA IZAGIRRE ALTNA URNIETAKO KORRIKA BATZORDEKO KIDEA

KORRIKA iritsi ahala, lanak pilatuko zaizkie AEKko kideei. Ekitaldiei dagokionez, azken hilabeteotako lan partekatuaren emaitza da Urnietan antolatu duten egitaraua

Lide Ruiz Telleria URNIETA

Egitarauaren antolaketari dagokionez, Korrika batzordea noiztik ari da lanean? Ostegun honetan aurkeztuko duzue, zer nolako aurkezpena aurreikusten duzue?

KORRIKA Batzordean hiru bilera egin ditugu. Lehenengoa, urtarilaren 20an izan zen, hurrengoa otsailaren 24an, eta azkena, martxoaren 3an. Hirurak

Lekaion egin ditugu, eta nahiko jendetsuak eta parte hartzaileak izan dira. Herriko hainbat eragiletako kideak gerturatu dira, tartean; Kantazaun, Manttale, Poxta Zahar eta Zanpatuzekoak. Bestetik, alderdi politikoetako kideek eta Udal ordezkariak ere parte hartu dute.

Oro har, oso gustura gaude haien parte hartzearekin eta

inplikazioarekin. Ostegun honetan aurkezpene egingo dugu. Helburua Batzordean ondutako egitaraua aurkeztea da, besteak beste. Batzordeko kideak etorriko dira, peto-zenbakituak banatuko ditugu, lekuko hartzea eskuratu duten eragileak ere etorriko dira. Horrez gain, herriarrak, ikasleak eta mintzailagunak ere bertaratuko dira.

Mintzailagunei aurkezpenean haiek idatzitako mezu txiki bat irakurtzea proposatu genien. Izan ere, garrantzitsua iruditzen zaigu haien lana aitortzea. Bost talde ari dira lanean, eta astean behin ordubetez elkartzen dira bidelagunarekin, ahozkoasuna hobetzeko. Zentzu horretan, haien lana aitortzeko eta omentzeko haiei emango diegu hitza. Haien aurkezpene hiru hilera bakoitzean euskaltegian egiten dugun jolasarekin lotuko dugu. Hiruhileko honetan korrika izan da gaia, eta orduan, ikasleek egingako lana aurkezteko jolasarekin bukatuko dugu aurkezpene.

Pozik zaudete KORRIKA batzordeak duen dinamikarekin?

Oro har, pozik gaude korrika Batzordeak egingako lanarekin. Aurretik azaldu dudana bezala, nahiko parte hartzailea izan da, eta eragile asko inplikatu dira. Denon artean egitarau txukuna antolatu dugu, hori beti da pozgarria.

Egitarauan haur eta gazteentzako eskaintza nabarmentzen da. Transmisioari garrantzia eman nahi diozue, ezta?

Bai, egitarauan saiatu gara adin guztientzat egokia eta aproposa den egitaraua osatzen. Esate baterako, 22an haurrak izango dira protagonistak, Jago Magoa etorriko da, eta Egape dantza taldekoek eta musika eskolakoek emanaldia egingo dute Saroben. 23an, aldiz, helduak eta gazteak egongo dira erdigunean. Korrika euskararen aldeko ekimena izanik, garrantzitsua iruditzen zaigu euskararen aldeko borroka denona dela ikustaraztea. Horregatik, denontzat egokia den egitaraua ontzeko beharra ikusi genuen.

Korrika Kulturala auzolanean antolatu duzue, zuentzat pozgarria da hain ezagunak diren kultur-gileekin aritzea?

Bai. Guretzat oso pozgarria izan da Urnietan antolatu izana. Pozgarria eta ohore handia, bai guretzat, bai herriarrentzat. Pozik gaude horrekin, eta uste dugu jende asko bertaratuko dela.

"POZIK GAUDE URNIETAKO KORRIKA BATZORDEKO KIDEEK ERAKUTSI DUTEN INPLIKAZIOAREKIN"

Oker ez bagaude, KORRIKA produktak salgai egongo dira ostiralean Salesiar Ikastetxean. Zehazki, zer da salgai jarriko duzue?

Bai, egun hori baliatuko dugu petoak salgai jartzeko. Urnietako AEKko kideak izango gara bertan. Aurtun gure helburua KORRIKA iritsi aurretik petonetarik ez pasatzea da. Horregatik, garrantzia ematen diegu petoak orain saltzeari. Horrez gain, inork Korrika Laguntzailea izateko informazioa nahiko balu, pinak eta eskuorriak izango ditugu bertan. Orokorrean Korrikari ekarpena egin nahi dion orok aukera izango du horretarako.

Ardo dastaketa ere antolatu duzue, azaldu ezazue hori.

Ardo dastaketa Matxo taberna-koek antolatu dute, eta 26an izango da arratsaldeko 19:00etan. Sarreraren prezioa oraindik zehazteke dago. Biba Ardoa-eko arduraduna etorriko da eta ordubete inguruko saioa izango da. Korrika etiketadun ardoak izango dira, ekologikoak eta lau motatakoak. Ardoari buruzko azalpenak emango ditu arduradunak eta tartean "zizka mizka" batzuk jateko aukera egongo da. **Korrika ordu txikietan pasako da. Dagoeneko prest dituzue lekuko aldaketak eta petoak?**

Bai, 24an goizeko 01:00ean pasako da Urnietatik, eta lekuko aldaketei buruzko informazioa bihar bidaliko diet eragileei, baina osteguneko aurkezpenean informazio guztia argitaratuko da. Bertan banatuko dizkiet peto zenbakituak.

Oro har, pozik zaudete Urnietarrak ematen ari diren erantzunarekin?

Pozik gaude Urnietarren parte hartzearekin, bai. Esan bezala, hainbat belaunalditako jendea elkartu da batzordean eta denon artean lortu dugu adin guztietarako egokia den egitaraua osatzea, eta haur zein helduek, Korrikan parte hartzea. Euskararen aldeko borroka denona da, eta denoi dagokigu horren alde aritzea. Horregatik, garrantzitsua da gazte zein helduek haurrei hori transmititzea.

"DENON ARTEAN LORTU DUGU ADIN GUZTIETARAKO EGOKIA DEN EGITARAUA OSATZEA"

Egun gutxi barru abiatuko da KORRIKA

24. KORRIKA Atharratzek abiatuko da martxoaren 19an, eta hilaren 29ra bitarte 2180 kilometro egingo ditu Euskal Herrian barrena. Ibilbidean 3436 lekuko-hartze egingo dituzte. Andoainera eta Urnietara martxoaren 23tik 24rako gauean iritsiko da

Erredakzioa ANDOAIN

Euskal Herriko hiriburuetan aurkezpen sozialak egiten ari dira KORRIKako arduradunak. Azkena, Iruñean. Bertan, Xabi Gartzia AEKren Nazio Kontseiluko kideak nabarmendu zuenez, “Euskaldunon komunitateari euskararen ezagutza unibertsa-la zor zaio”. Haren hitzetan, KORRIKak Euskal Herri osoan herritar guztiek euskaraz eroso bizitzeko eskubidea aldarrikatzen du, eta, horri begira, ezinbestekoak dira hizkuntza-politika eta erreminta “ausart eta sendoak”, doakoak eta guztiontzat eskuragarriak, xede dutenak hezkuntza, transmisioa eta helduen



KORRIKako arduradunak. AEK

euskalduntzea bermatzea. Aurtengo leloa, EUSKARA GARA, komunitatearen izaera irekia eta askotarikoa azpimarratzeko hautatu dute. Ane Elordi Korrikaren arduradunak azaldu duenez, “Euskara ez da muga, arnasa baizik; zubi gisa landu behar da, kohesio sozialerako tresna moduan”.

2.180 kilometro, 3.436 lekuko

24. KORRIKA Atharratzek abiatuko da. Antolatzaileek aurreratu dutenez, hainbat keinu berezi izango dira, nola ez, Errigora aurtengo omenduari lotutako ekitaldiak. Elordik gogorarazi du Korrika jaia eta aldarrikapena dela aldi berean: “Ez gara folklore, euskara gara”, eta herritarrei dei egin die, Korrikan parte hartzera ez ezik, haren mezua urte osoan zabaltzera ere.

Bestalde, KORRIKak bildutako badirua euskararen normalizaziora bideratuko dira. Hala ere, AEKren ordezkariak ohar-tarazi dute ezinbestekoa dela instituzioen inplikazioa eta hizkuntza-politika eraginkorrak garatzea, euskararen biziberri-tzean jauzi berria egiteko.

Hitzorduak Andoain

Martxoak 18, asteazkena

19:00 Plaza Morea.
Bertso-triki poteoa, Puntuka eta eta Urkiren eskutik: Eñaut Martikorena eta Andoni “Anatx”.

Martxoak 23, astelehena

11:30 KORRIKA gaztea.
Amaikutakoa, DJ emanaldia.
15:30 KORRIKA txikia.
18:00 Peto-potea.
19:00 Zumea plaza.
Petoen banaketa.
Euriarekin, Makaldegian.
20:30 Zumea plaza.
Bokata-afari musikatua.
Txartelak salgai
Ernaitza, Keinu eta AEK. Euriarekin, Makaldegian.
00:10 KORRIKA 24 Andoain.



AIURRI



Harpidedun izatearen abantailak

Laster zenbaki berria argitaratuko dugu!

Kantu liburuxka

MIZPIRADI 943 59 39 54
SAGARDOTEGIA



Leizotz, 14 - ANDOAIN - www.mizpiradi.eus

sagarra, sagarrondoa, sagardoa



gure lurran estuki lotuta doa

ANDOA ENFITEI TERAKO
ANDOAINGO UZALA

sagardoa route

EZ ZAITEZ EROTU!



BERROGUEZ AARRERATU ERRESERBATU
ZURE MAHAIA EZKIRATU

www.sagardoa.eus

943 336 811 - info@sagardoa.eus

Zatoz gure sagardotegira!
Erreserbak. Tlf: 943 55 49 17
Web: altunasagardotegia.eus



Galarroga baserrria, 5. Lategi. Urnieta

BURUNTZALDEA, sagardoaren lurraldea
KUPELA, sagardoaren hotela
HK10, sagardozakeen logela

Hotel HK10
943 337 357
info@hotelk10.com
Erratzu industrialdea. Urnieta



Hotel HK10

943 59 19 68

GAZTANAGA
SAGARDOTEGIA

www.gaztanaga.eus
info@gaztanaga.eus



Irurain etxea
Buruntza
auzoa
ANDOAIN

O! OIANUME
SAGARDOTEGIA - JATETXEA



oianume.com/eu - oianume@oianume.com
943 55 66 83 Ergoien, 18 - Urnieta

EULA
TOLARE SAGARDOTEGIA
URNIETA

943 552 744 - 647 437 703

www.eulasagardotegia.com



LARRE-GAIN
TOLARE SAGARDOTEGIA

943 555 846 - 616 287 867

Ereñotzu
auzoa, 58
Hernani



larregain.sagardotegia@hotmail.com



Andoaingo Mugimendu Feministak adierazpena irakurri zuen Zumea plazan, manifestazioaren amaieran. AIURRI

"Noiz normalizatu dugu indarkeria hau guztia?"

Literatartasuna zerion adierazpena irakurri zuen Andoaingo Mugimendu Feministak, martxoaren 8ko manifestazioaren amaieran. Idazketa zaindua, zorrozatasuna eta gordintasuna sailhestu gabe

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Martxoaren 8an, manifestazioaren amaieran, adierazpena irakurtzeko ekin zioten Zumea plazan. Euskaraz izan zen ia erabat, eta pasarte batzuetan euskaraz adierazitakoa gaztelaniaz errepikatu zuten. Honatx, manifestazioaren amaieran Andoaingo Mugimendu Feministako bi kidek irakurri zuten adierazpena: "Poesiak lekuri izan badezake gaur, orain egin diogun arrakalan da.

Gaur ez dugu irakurketarik ekarri. Mundua nola dagoen jakin nahi duenak irakur eta araka dezala.

Gaur ez dugu testurik irakurriko esaldi luzeen artean gaitzen baitira batetik, gauzak azaldu behar izateko gure energia eta bestetik, zuen arreta.

Hala ere hitz batzuk ekarri ditugu, laburrak, azkarak.

Lasai, eta lekua egingo diogu, halere, arnagune honetan mikrofona hartzeko amorruak

gutxitan ematen dizkio hitzak literaturari eta, beraz, zuzenak izango gara denok uler dezagun. Zuzenak izango gara ezer eskapa ez diezaion inori eta, bereziki, zuek uler dezazuen.

"HONEK GUZTIAK IZENA DU: KAPITALISMOA, KOLONIALISMOA... ETA ARRAZAKERIA"

Eta, bereziki, poteatzen ari zareten horiek uler dezazuen eta esker dezazuen hitzak idaztera bideratzea erabaki dugu.

Gaur gorputz batzuei su emateko diogun gogo

Palestina

Macarena

Pilar

Iran

Czarina

Maria Isabel

Maria del Carmen

Rojava

Victoria

Maria Belen

Venezuela

Ana Maria

Maria Jose Sahara

Noemi

Petronila

Tatiana

Libano

2026an bi hilabete eta zortzi egun, besterik ez. Guztiak erasotutak,

guztiak gorpuak.

Noiz utzi diogu eraildako emakumeen izenak errepikatzeari? Noiz Palestinaz hitz egiteari? Noiz normalizatu dugu indarkeria guzti hau?

Honek guztiak izena du, honek guztiak izen-abizenak ditu:

zisheteropatriarkatua

kapitalismoa

kolonialismoa...

eta arrazakeria,

munstro erraldoia,

urruti sumatzen duguna baina

gure kaleak ere zapaltzen dituen Sentitzen baitugu ere gorputzean giroan

harremanetan

etxebizitzan

bizitzan...

eta sentitzen dugu aldi berean hau esan behar izatea baina... dena dagoen bezala egonda jarraitu nahi al duzu sistema, herri hau baino indartsuago egotea sustatzen??

Guk argi daukagu:

Guk aspaldi erabaki genuen ze aldetan eta norantz egin nahi dugun. Mundu hau aldatu nahi dugu eta mundua aldatzeko gu ere aldatu behar garela argi dugu ertz eta borroken aliantzetatik.

Eta zuek?

"EZ DUGU FEMINISMOTIK EZ DEN BESTE LURRALDETSUNIK IMAJINATZEN"

Zergatik zaudete hain eroso? eta zergatik ez da deserosoa gaurko eguna?

Zuen lodifobia indarkeria da.

Zuen transfobia indarkeria da.

Zuen LGTBIAQ+fobia indarkeria da.

Zuen putofobia indarkeria da.

Zuen begirada indarkeria da.

Zuen arrazakeria indarkeria da.

Zuen lagunarteko kolegeo marxista indarkeria da Zuen konplizitatea indarkeria da.

Eta ez bazara konponbidea, arazoa zara.

Guri

gure lagunek zaintzen eta babesten gaituzte eta horregatik ez gaude inoiz bakarrik begiak ditugu toki guztietan.

Eta arriskutsuak gara,

haserre gaudelako.

Gaur, hemen, hitz hauek irakurtzea boterea da,

gure askatasunagatik borrokatzen egotea boterea da,

gure desira zalantzan jartzea boterea da,

gure hitza mahai gainean jartzea eta horri lekua ematea boterea da saretuta egotea boterea da,

elkar zaintzea boterea da.

Zaintza sistema publiko komunitarioa eraikitze bidean egotea, boterea da eta hau guztia arriskutsua da sistemarentzat

haserre gaude

eta benetan ez dugula ulertzen nola zuetako batzuk ez.

Beste mundu bat aldarrikatzen dugu gaur eta beti.

Mundu hau sutan baitago, eta gu ere, mundu honek hiltzen eta biolentatzen gaituelako, mundu honek ez gaituelako zaintzen.

Beste mundu bat aldarrikatzen dugu eta ez digu edozeinek balio, ez dugu feminismotik ez den beste lurraldetasunik imajinatzen.

Bien bitartean, guk borrokan jarraituko dugu, egunero, elkar zainduz, eta elkarrekin borrokatuz arriskutsuak garelako, mundua ez da mugituko gu mugitzen ez bagara.

Beraz, zuk ere mundu hau aldatu nahi baduzu batu borrokara.

Gora borroka transfeminista!.

"MUNDUA EZ DA MUGITUKO GU MUGITZEN EZ BAGARA. BORROKAN JARRAITUKO DUGU"



Jendetza elkartu zen igandeko manifestazioan. Eguneko zentrura iritsita, bertako langileen eskubideen aldeko aldarria egin zuten.



Manifestazioa Agustin Leiza kaletik igaro zenean. AIURRI

Emakumeen afaria, ostiral iluntzean, Goikoplazan



Lagun ugari elkartu zen ostiral gaueko afarian. Argazki-bilduma ikusgai dago Aiurri.eus webgunean. AIURRI



Igande eguerdian egin zuten bilkura San Juan plazan. AIURRI

Martxoaren 8ko bilkura Urnietako plazan

Emakumeen Nazioarteko Egunaren adierazpen instituzionala irakurri zuten ekitaldian

Erredakzioa URNIETA

"Martxoaren 8an, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorrarekin dugun konpromisoa irmoki berresten dugu. Printzipio demokratiko ukaezina da, eta gizarte justu, aske eta kohesionaturako funtsezko zutabea. Gaur, ahotsa irmo altxatzen dugu berdintasuna defendatzeko eta aldarrikatzeko. Izan ere, bere diskurtsoa zokoratzen eta zalantzan jartzen ari da komunikabideetan, sare sozialetan eta, giza harremenarako eguneroko espazioetan.

Egun, historian zehar gertatu den bezala, berdintasunean aurrerapausoak eman ahala, mugimendu antifeministak ere gora egin du, eta hori diskurtso erreazionario eta misoginoen bidez plazaratzen ari da. Narratiba horien bidez feminismoaren oinarrizko konkistak zalantzan jarri, nahasmendua sortu eta indarkeria matxistaren existentzia deslegitimatu nahi dute. Antolatutako erasoaldi politiko baten aurrean gaude, eta eztabaida publikoan ezin dira beste iritzi bat balira bezala onartu.

Berdintasunaren defentsa ez da aukera bat, ezta ideologia bat ere: giza eskubide unibertetsala da, aitortua eta babestua. Emakumeen, mugimendu feministen, erakundeen eta pertsona aliatuen hamarkadetako borrokaren eta lanaren bidez lortutako eskubidea da, batez ere, diskriminazioa desagerrarazteko, askatasunak zabaltzeko eta guztientzako aukerak bermatzeko.

Berdintasunean hezten, estereotipoak baztertzen eta errespetuan, askatasunean eta duintasunean oinarritutako harremanak sustatzen dituen gizarte aldarrikatzen dugu; baita indarkeria matxistaren biktimak aintzat hartzen, laguntzen eta entzuten dituen ere. Ozen eta garbi diogu: berdintasunik gabe ez dago erabateko demokraziarik, eta indarkeria matxista dagoen bitartean, ez dago askatasunik.

Martxoaren 8an, dei egiten diegu herritar, elkarte eta erakunde guztiei irmo egon gaitezen, elkarrekin, lortutako eskubideen defentsan eta, atzerapausurik gabe, berdintasun erreal eta eraginkorrerantz aurrera jarraitzeko.

Horregatik, Urnietako Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Esku hartzea gure udalerrian diskurtso misogino eta jarrera antifeministei aurre egiteko, eta informazio faltsuen hedapena desaktibatze eta desmuntatzeko.
- Erresistentzia-aliantzak sustatzea Urnietako talde feminista eta elkarrekin, jarrera antifeministak identifikatzeko eta eteteko bizikidetzak-espazioetan eta komunitate birtualetan.
- Baliabideak eta egiturak zaindu eta babestea Urnietako berdintasun-politikek aurrera egiten jarrai dezaten.

Amaitzeko, dei egiten diegu herritarrei Martxoak 8-Emakumeen Nazioarteko Egunean antolatzen diren deialdi eta aldarrikapenekin bat egin dezaten".



Irradaka, adin guztietako partaideek elkarrekin egiten duten dantza da. Pauso txikiak dira, esanahi berezikoak, mundua aldatu nahia adierazten dutenak. Irradakaren bideoa ikusgai dago Aiurri.eus gunean. AIURRI

"Pauso txikiekin, erabat gaiztotu nahi diguten mundu hau aldatu nahi dugu"

Batasuna borobilean islatu zuten, plazaren erdian, egun seinalatuan: Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna. Irradaka dantza egin zuten Andoainen, Mugimendu Feministak antolatutako manifestazioa abiatu aurretik

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Vicky Castro, Jone Larrañaga eta Joy Enaziegbe izan ziren, Irradaka dantzari ekin aurretik, aurkezpen lanak egin zituztenak. Ahotsa eta danbor doinua baliatuta, Andoainen hitz egiten diren hainbat hizkuntzei keinu egin zieten. Oro har, honatx, Goikoplazan egin zuten adierazpenaren muina: "Andre, emakume, emazte, neska, alaba, amona, lagun...

ongiotorri ahizpa denak! Iaz elkartu ginen lehen aldiz, honela, borobilean. Eta borobilak ematen digun indar hori biziberritzeko gaude berriz hemen. Horrela egin nahi dugu, hemendik aurrera, urtero, martxoaren 8 guztietan. Taldetasuna, batasuna eta elkartasuna indartzeko. Munduko emakumeak aintzinatik batu izan dira borobilean. Euren gorputzak eurenak direla senti-

tzeko, ahalduntzeko, dantzatzeko eta kantatzeko. Zirkulua da gure indarra. Batasuna eta borrokarako deia. Pauso txikiekin mundua –erabat gaiztotu diguten mundu hau– aldatu nahi dugulako. Gurea da askatasun sarea!". Hitzak eta irrintzia kateatu ziren, segidan, Irradakari hasiera emanez. Ordurako, borobilean, plazaren erdian, prest ziren dozenaka lagun.



Vicky Castro, Jone Larrañaga eta Joy Enaziegbe, Irradakaren aurkezpenean. AIURRI



Kantariak, Irradakaren amaieran, Goikoplazan. AIURRI

Udaberriko Jabekuntza Eskola aurkeztu dute

Aukera zabala da: Batukada eta rapa, ongizate emozionala eta autozainketa, filosofia feminista, mendi orientazioa, elektraindar aparailuen konponketa, nutrizioa menopausian, sendabelarrak, zoru pelbikoaren lanketa eta topagune kultur anitza

Xabier Lasa ANDOAIN

Martxoaren 8ko ospakizun nagusiak igaro berritan aurkeztu dute Jabekuntza Eskolaren eskaintza berria. Giroan, saihes-tezina zen, aurreko asteburuko hitzorduak antzematen ziren. Sentsazio on horiei bide eman zien Haizea Barandiaran Berdintasun zinegotziak bere lehen hitzartzean: "oraindik martxoare 6an eta 8an bizitzakoa gorputzean dugula, ahalduntzeari eta jabekuntzari bidea ematen jarraitu behar dugu. Eta, horretarako, Andoaingo Udalak espazioak ahalbidetuko ditu jabekuntzaren bidez emakumeak ahalduntzeko".



Udal ordezkariak eta teknikaria, aurkezpen-ekitaldian. AIURRI

Jakina denez, Jabekuntza Eskolak Andoaingo Udaleko Berdintasun Sailak antolatzen du, emakumeen ahalduntze prozesuak bultzatzeko. Balio ugari atxikitzen dizkiote egitasmoari: "Ahalduntzea emakumeek beren buruaren autokontzientzia garatzea, autoestimua lantzea eta dituzten gaitasunak ezagutzea da. Eta baita emakumei historikoki ukatu zaizkien espazioak berreskuratzea ere".

Hala, udaberriko programazioan hainbat ikastaro eta lantegi izango dira, emakumeen garapen pertsonala, soziala eta kolektiboa sustatzeko. Jabekuntza Eskola, askoren artean, topagunea dela adierazi baitzuen Haizea Barandiaran zinegotziak: "harremanetarako, esperientziak partekatze eta elkarrekin ikasteko espazioa da. Andoaingo emakumeen artean sareak

sortzea du helburu, elkar eza-gutzeko, elkarri laguntzeko eta elkarrekin gozatzeko".

Ikastaro guztiak, doakoak

Izen-ematea martxoaren 11tik zabalik da. Ikastaro edo lantegiren batean eskaintzen diren plaza kopurua baino izen-emate gehiago jasotzen badira, zozketa egingo da izena eman duten pertsonen artean.

- Informazioa eskatzeko edo izena emateko bideak hauek dira:
- Izena emateko bideak:
- Webgunea: jabekuntza.andoain.eus.
- Andoaingo Udaleko Berdintasun Saila.
- Telefonoa: 943 300 830 (380 eta 385 luzapenak).
- Emaila: berdintasuna@andoain.eus.
- Andoaingo Udaleko Ataria zerbitzua.

**DAGOENEO ZABALIK
DAGO IZEN-EMATEA
ETA HAINBAT
MODUTARA EGIN
DAITEKE**

**XEDEA GARAPEN
PERTSONALA,
SOZIALA ETA
KOLEKTIBOA
SUSTATZEA DA**

Andoaingo emakumeentzako Jabekuntza Eskola UDABERRIKO IKASTAROAK - 2026

Batukada feminista

ASTELEHENAK. Apirilak 20, maiatzak 18, ekainak 1, 15. **18:00-20:00**, Leizaran Institutua. Botapa Batukada.

RAP ikastaroa

ASTEAZKENAK. Apirilak 15 eta 17. **18:00-20:00**, Arrate. Elena Caballero (LA BASU)

Ongizate emozionalerako eta autozainketarako lantegiak

ASTEARTEAK. Apirilak 14, 28, maiatzak 12, 26, ekainak 9. **10:00-12:00**, Arrate. Saioa Garmendia.

Filofeministak: Filosofia errepublikarrak etxe bila "erbestean"

ASTELEHENAK. Apirilak 13, 27, maiatzak 11, 25, ekainak 8, 15. **18:30-20:30**, Arrate. Marisa Hurtado.

Mendi orientazioa

Ekainak 5, ostirala (**17:00-20:30**).
Ekainak 6, larunbata (**09:00-14:00**).
Ekainak 7, igandea (**09:00-14:00**).
Patri Espinar.

Elektrindar lantegia: argia eskuz esku

OSTEGUNAK. Apirilak 16, 23, 30, maiatzak 7, 14, 21, 28. **17:00-20:00**, Arrate. Paz Carbajosa.

Ibilian irakurri: Maitasunaren kapital feministaz

ASTEARTEAK. Apirilak 14, maiatzak 5, ekainak 9. **18:30-20:30**, Arrate. Iratxe Retolaza.

Nutrizioa perimenopausia eta menopausian

ASTEARTEAK. Maiatzak 19, 26, ekainak 2. **18:30-20:30**, Arrate. Aitziber Aizpuru.

Sendabelarrak ezagutzen I

ASTEAZKENAK. Maiatzak 20, 27 ekainak 3, 10. **18:00-20:00**, Arrate. Kris Lizarraga.

Gure zoru pelbikoa konkistatzuz!

OSTEGUNAK. Ekainak 4, 11, 18. **17:00-19:00**, Arrate. Sara Majarenas.

Jatorri anitzetako emakumeen elkargune multikulturala

ASTEARTERO. 16:30-18:30, Arrate. Sorburu.

IZEN EMATEA ETA HARREMANA:

jabekuntza.andoain.eus
Andoaingo Udaleko Berdintasun lansaila.
Tel. 943 300 830, luz. 380 - 385;
berdintasuna@andoain.eus - Andoaingo Udaleko ATARIA





Benjamin, alebin eta infantil mailako podiuma, lasterketa amaitu berritan. AIURRI



Ibilbide itxian egiten da denboraldiko lehen lasterketa. AIURRI

Denboraldiko lehen pedalkadak, Andoaingen

Andoaingo Txirrindulari Eskolak antolatuta, haur eta gaztetxoek mailako lehen proba egin zen Andoaingen. Euriaren mehatxua agerikoa bazen ere, uste baino eguraldi hobea izan zen. Ibilbide itxian, jazarpen proba modukoa izan zen partaideentzat

Erredakzioa ANDOAIN

Udazkenean eta neguan babesean egin dituzte prestaketa-lanak. Proba fisikoak eta bizikleta gaineko abilezia-arietak izaten dira, gehienbat. Akaso, gaztetxo bat baino gehiago, ziklo-krosean aritu da neguan. Baina honaino iritsita, udaberriaren ateetan, txirrindulari guztiak errepidean lehiatzeko zain izaten dira.

Azken urteotan Andoaingen egiten da haur eta gaztetxo mailako lehen lasterketa, Andoaingo Txirrindulari Eskolak antolatuta. Ampo, Zarautz, Oriako, Andoaingo... Gipuzkoako hainbat taldetako neska eta mutilak hurbildu ziren udalerrira, igande goizez, bakoitzari zegokion mailan lehiatzera. Ibilbide itxian, jazarpen modukoa izan zen.

Sailkapenak

Benjamin eta alebin mailakoak lehiatu ziren. Eta baita infantil mailakoak ere. **Mutilak:**

- 1.- Aiur Goiburu.
- 2.- Unax Urizar.
- 3.- Xuhar Muñoa.

Neskak:

- 1.- Lizar Zubeltzu.
- 2.- Leire Galeano.
- 3.- Jare Aginaga.



Kale Berritik abiatu zen lasterketa. AIURRI



Leizaur parkean egin zituzten beroketa-lanak. AIURRI

Atal berezia Aiurri.eus webgunean

MARTXOAK 8

Albisteak, hitzorduak, argazki-bildumak, bideoak...

Okm:
batzen gaituen
distantzia

Egin zaitez aiurrikide

**AIURRI
KIDE**

Padel txapelketa antolatu dute Urnietan

Izen-ematea ostiral honetan amaituko da. Bikoteka egin behar da eta prezioa 15 eurokoa izango da pertsonako

Erredakzioa URNIETA
Kirol jarduera bat nabarmen hazi bada, hori padela da. Lehen lezioak ikasita, jendea erraz animatzen ari da parte hartzera. Gainera, binaka jokatzeko da eta horri esker jarduera soziala bilakatu da. Garapenean ezinbestekoa izan da instalakuntzen hazkundera. Gauzak horrela, padel txapelketa antolatu dute Urnietako kiroldegian. Martxo-ko azken asteburuan jokatu da eta interesatuek ostiral honetan eman behar dute izena. 630 86 1756 telefono zebakira



Padel palak. WIKIMEDIA

whatsapp bidez egin behar da eskaria.

Koadro nagusia eta kontsolazioa
Txapelketan bi kategoria mixto egingo dituzte eta, bakoitzean, 8 bikote lehiatuko dira. Txapelketako lehenengo partida irabazten dutenek koadro nagusian aurrera egingo dute. Galtzaileek, aldiz, kontsolazioa jokatzeak aukera izango dute.
Izen-ematea bikoteka egin beharko da eta prezioa 15 eurokoa izango da pertsonako. Ordainketa eskudirutan egingo da, txapelketaren egunean bertan. Sariei dagokienez, garaikurrak, gosariak, eta pilotak banatuko dira, besteak beste. 18 urtetik gorakoentzat da Urnietako Kiroldegian antolatu duten txapelketa.



MATEO PONCE

Euskal Herriko txapela jantzi dute, palan

Aurreko asteburuan Bizkaiko Gatika herrian jokatu zen finalean, Gaztelekuko pala-pilotariek Irtxan Loiu pilota klubekoak mendean hartu zituzten. Paleta larruz ifñaki

Lopez de Munain-Mikel Begiristan bikoteak jokatu zuen, eta pala motzean, berriz, Ibon Altuna-Koldo Ponce bikoteak.

Gaztelekuko gaztetxoek garaipenak

Naroa Merino, Xabat Olano eta Danel Polo zesta puntan; Unax Gonzalez, esku-pilotan

Erredakzioa ANDOAIN
Naroa Merinok Berriatuako VIII. nesken zesta-punta txapelketako txapela jantzi zuen, Joane Agirrerekin bikotea osatuta. Bestalde, Xabat Olano eta Danel Polo jubenilek Gipuzkoako zesta-puntako Udaberriko txapelketa irabazi zuten. Azkenik, Unax Gonzalezek Arkupe Pilota Txapelketa irabazi zuen, Zazpi Iturriko Aitor Arteaga lagun hartuta.



Aitor Arteaga eta Unax Gonzalez. GAZTELEKU



Naroa Merino eta Joane Agirre. GAZTELEKU



Danel Polo eta Xabat Olano, Arraten. GAZTELEKU

MARTXOAK 14

LARUNBATA · 16:30

GALARRETA

JAI ALAI

berria

ERREMONTE

TXAPELKETA 2026

1. PARTIDA (UKUSKIZUN PARTIDA)

GOIKOETXEA V · JUANENEA VS

JABALERA · AZPIROZ

2. PARTIDA (BEKKI, ERREMONTE TXAPELKETA)

AIESTARAN VII · BARRENETXEA IV VS

SUSPERREGI · LARRAÑAGA

3. PARTIDA (BEKKI, ERREMONTE TXAPELKETA)

EZKURRA II · GOIKOETXEA VI VS

SEGUROLA · ESKUDERO

ORONA

HAIN GELUZKOA

SUKIA

VOLVO

AIURRI



Estefania eta Zuriñe Andoaingo ESCIVI eskolako ikasleak. AIURRI

"Egiten ditugun proiektuei esker asko ikasten ari gara"

ZURIÑE DE AGUEDA RUEDA ETA ESTEFANIA BELAGUER SIERRA ESCIVIKO IKASLEAK
Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen produkzioko goi-mailako ikasleak dira. Lehenengo mailan daude, eta ikasturteko proiektuetan buru-belarri dabilta lanean

Lide Ruiz Telleria ANDOAIN

Zer dela eta erabaki zenuten ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen Produkzioko goi-maila ikastea?

Zuriñe De Agueda Rueda: Nire kasuan, aurretik, Ikus-entzunezko Proiektuen eta Ikuskizunen Errealizazioko goi-maila ikasi nuen ESCIVI Andoaingo zinema

eta bideo eskolan, eta argi nuen ez niola ikasteari utzi nahi. Arlo horretan gehiago trebatu nahi nuen, eta formazioari begira, errealizazioaz gain, Ikus-entzunezko Proiektuen eta Ikuskizunen Produkzioa ikastea interesgarria izango zela pentsatu nuen.

Estefania Belaguer Sierra: Artearen Historia ikasi nuen nik. Karre-
ra amaitzean, lan-munduari begira gehiago espezializatu nahi nuen, eta goi mailako gradu bat egitea onena izango zela pentsatu nuen. Hainbat aukera aztertu nituen, eta gradu hau izan zen interes handiena piztu

zidana, nire interesekin bat egiten baitu.

Zein dira graduan zehar egin dituzuen jarduerak nagusiak?

E.B.S.: Lehenengo serie-dokumental bat egin genuen, ondoren, antzerki-lan bat eta orain, film labur bat egiten ari gara.

Z.A.R.: Bai. Horrez gain, ikasturte amaieran ikasturte amaierako gala bat egingo dugu Andoaingen, Bastero Kulturgunean. Bertan, urtean zehar Esciviko ikasleok egin ditugun proiektuak sarituko ditugu.

Otsailean Escivin antzezlanak antolatzen ibili zarete, Andoaingen bestelako emanaldirik egingo duzue?

Z.A.R.: Hurrengo ekitaldia, aipatutako ikasturte amaierako gala izango da. Egia da, ikasleei zuzenduta dagoela, baina Eskola-koa ez den jendeak ere bertartzeko aukera izango du.

Zein da emanaldi horiek antolatzearen helburu nagusia?

E.B.S.: Helburu nagusia, guk ikastea da. Aukera dago kanpoko jendea emanaldiak ikustera etortzeko, baina batez ere senideak etortzen dira. Zentzu horretan, ez dira oso ezagunak gure emanaldiak.

Z.A.R.: Bai, gure klase-kideen proiektuak ezagutzea da helburua. Ikasturte amaierako galari dagokionez, Escivin ikasten ez duen pertsona bati agian ez dio interesa piztuko, ikasleok egin ditugun proiektuak saritzen baititugu. Hala ere, ekitaldira etortzeko gonbita zabaldu nahi diogu jendeari.

Tokiko hedabideek emanaldi horiei ikusgarritasuna eman behar diegula uste duzue? Garrantzitsua da ahalik eta jende gehien bertaratzea?

Z.A.R.: Nire ustez, ondo dago egiten dugun lana aitortzeko. Bigarren ikasturtean, adibidez, arratsaldean Escivin egiten diren kontzertuen erreportaje bat egiten du Aiurrik, eta orokorrean, jende gehiago bertaratzen da. Izan ere, eskolako ikasleez gain, kanpoko jende gehiagok parte hartzen du antolaketan. Zentzu horretan, garrantzitsua iruditzen zait tokiko hedabideek gure proiektuei ikusgarritasuna ematea.

"ZINEMA ESKOLAREN GALARA HURBILTZEKO GONBITA ZABALDU NAHI DIOGU JENDEARTEARI"

E.B.S.: Bai, lehenengo mailan helburua guk ikastea da, bigarren mailan, aldiz, kanpoko jendea erakarri nahi dugu, eta horretarako, publizitatea beharrezkoa izango da.

Nolakoa izaten ari da zuen esperientzia Zinema eta Bideo Eskolan?

Z.A.R.: Nire kasuan, nahiz eta aurreko graduako esperientzia izan, oso desberdina izaten ari da. Iaz, adibidez, 13 lagun ginen Errealizazioko klasean, eta lana denon artean banatzen genuen. Aurten, berriz, 2 gara Produkzioan aritzen garenak, eta lan karga izugarri handitu da. Hala ere, asko ikasten ari garela uste dut, nahiz eta beste klase-kide batzuk izatea eskertuko genukeen, lan karga arintze aldera.

E.B.S.: Bai, nik ere sentsazio antzekoa dut. Egiten dudana gehiago antolatu nahi nuke, baina ez dut aukerarik izaten. Hori alde batera utzita, orokorrean pozik nago, egiten ditugun proiektuei esker asko ikasten ari naiz, eta eskaintzen dituzten praktikak ere oso ondo daude.

Produkzioari dagokionez, zein da gehien gustatzen zaizuen alorra?

Z.A.R.: Normalean, jende gehienak zinemarkiko eta ikus-entzunezko edukiarekiko interesa izaten du, guk, berriz, emanaldi eszenikoak eta ekitaldiak nahiago ditugu; antzerkiak eta musikalak, esate baterako.

Etorkizunari begira, zertan aritu nahiko zenukete?

E.B.S.: Argi daukat, antzoki batean egin nahi dut lan. Hori da nire helburu nagusia. Baina, oro har, emanaldi eszeniko guztiak iruditzen zaizkit interesgarriak.

Z.A.R.: Nik zalan-za gehiago ditut, bi graduetan ikasitakoa gustatzen baitzait. Aurten, produkzioko praktikak egiten oso gustura egon naiz, baina ikus-entzunezko alorra faltan bota dut. Bestalde, momentuz, produkzioarekin jarraitu nahi nuke, kontzertuen antolaketan, batez ere. Kontzertuetara joatea asko gustatzen zait, eta horren antolaketan lana egitea izugarria litzateke, ikus-entzunezkoen arloa asko gustatzen zaidan arren.

"GARRANTZITSUA DA TOKIKO HEDABIDEK GURE PROIEKTUEI IKUSGARritasuna EMATEA"

Datorren astean, Lanbide Heziketaren II. Azoka

Andoaingo Udalak eta Andoaingo Lanbide Heziketa eskaintzen duten hiru ikastetxeek antolatuta dute Prest! Azoka. Elkarlanean aritu dira, udal erakundearen eskutik, La Salle Berrozpe ikastetxea, Leizaran Institutua eta ESCIVI zinema eta bideo-eskola



Prensa-agerraldia egin zuten astearte goizean, Basteroko erakusketa gelan. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN
Andoaingo Udalak eta herriko Lanbide Heziketako hiru ikastetxeek "Prest! Zure aukera" azokaren bigarren edizioa antolatu dute. Basteroko erakusketa gelan izango da, martxoaren 16an eta 18an, hurrenez hurren. Gonbita luzatuta dago, interesa izan dezakeenarentzat: "Azokan stand informatiboak egongo dira, ikastetxe bako-

tzaren eskaintza modu argigarri eta praktikoa ezagutzeko aukerarekin", adierazi dute asteartean deitu zuten prentsa-agerraldian. "Standetan, irakasleek eta ikasleek zikloen edukiak, praktikak eta lanbide-irtenbideak azalduko dituzte, eta bisitariek orientazio pertsonalizatua jasotzeko aukera izango dute". Prentsa-agerraldian gogorazi zuten, Andoaingo

go Lanbide Heziketa enplegarritasun maila handikoa da, eta zera gaineratu: "eskualdeko enpresek geroz eta gehiago eskatzen dituztela profil tekniko eta espezializatu horiek". Agerraldian, Udal ordezkaritza zabala eta hiru ikastetxeetako arduradunak elkartzeko baliagarria izan zen. Bertan izan ziren Andoni Alvarez Lete alkatea, Aritz Alkain (PSE-EE),

Txitxu Ruiz (EAJ-PNV) eta Pepe Iparragirre (Podemos) zinegotzia, Hilario Dorronsoro Udaleko enplegu eta gazteria saileko teknikaria, Rosa Hernandez Udaleko enplegu eta formakuntza teknikaria, Aitor Ormazabal Leizaran Institutuko zuzendaria, Xabi Garin La Salle Berrozpeko LH zikloko arduraduna, Pio Eraso La Salle Berrozpeko LHko zuzendaria, eta, Pelaio Eizagirre ESCIViko irakaslea. Aurkezpenen zehaztu zuten, "bigarren edizioak iazko bideari jarraipena emango dio, baina aurten marka propioarekin: "PREST!, zure aukera" lelopean.

MARTXOAK 16, ASTELEHENA

Bastero Kulturunea.
Erakusketa-gela.

Azoka:

Ordua: 10:00-14:00 / 16:00-20:00.

MARTXOAK 18, ASTEAZKENA

Bastero Kulturunea.
Erakusketa-gela.

Azoka:

Ordua: 10:00-14:00.

Mahai-ingurua:

"Etorkizuna diseinatzeko: LH, aukeraz beteriko bidea". Hizlariak: Maite Lizartza, Hezkuntzako Saileko ikuskaria; Natalia Gaston iTlent Lanbide Heziketako Talentuaren Euskal Institutuko ikertzailea; eta, Oier Urkola eta Joanes Agirre ikasle ohiak. Moderatzailea: Maria Meijide, Hezkuntzako ikuskari burua.

Ordua: 18:00.

ANDOAINGOA ENPLEGAGARRITASUN MAILA HANDIKO ESKAITZA DELA ADIERAZI DUTE

Andoaingo eskaintza

ESCIVIn, La Salle Berrozpen eta Leizaranen.

Oinarrizko Maila:

- Elektrizitatea eta Elektronika (LSB).

Erdi Maila:

- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta (Leizaran).
- Disk-jockeya, bideoa eta soinua (ESCIVI).
- Mantentze-lan elektromekanikoa (LSB).
- Soldadura eta galdaragintza (LSB).

Goi Maila:

- Gizarteratzea (Leizaran)
- 3D animazioak, jokoak eta multimedia elkarrengatik (ESCIVI).
- Irudia argiztatu, hartu eta tratatzea (ESCIVI).
- Ikus-entzunezko eta ikuskizunen produkzioa (ESCIVI)
- Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen errealizazioa (ESCIVI).
- Ikus-entzunezkoetarako eta ikuskizunetarako soinua (ESCIVI)
- Administrazioa eta finantzak (LSB).
- Fabrikazio mekanikoko diseinua (LSB).
- Mantentze-lan elektronikoa (LSB).
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa (LSB).
- Fabrikazio adimenduna (LSB).

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA



andoaINDARRA
euskaraz

AGENDA

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

MUSIKA

URNIETA Bidasoatik harago
Jon Garmendia eta Xabier Solano,
Korrika Kulturalaren eskutik.
19:30, Salesiar ikastetxea. 10 euro.
Martxoak 13, ostirala.

URNIETA Abesbatza
Andoingo Udal Musika Eskolako
abesbatzaren kontzertua, Katrin
Iturrালের zuzendaritzapean.
Urnietako Parrokiak antolatutako
emanaldia.
20:00, San Miguel eliza.
Martxoak 13, ostirala.

ANTZERKIA

ANDOAIN Urrup antzerkia
"Segunda convocatoria". Sarrerak
Zuena elkartearen eta egunean
bertan.
19:30, Sarobe. 8 euro.
Martxoak 13, ostirala.

URNIETA "Bi baso bat ur"
4 pertsona dantzaleku baten erdian.
Geldirik daude, eta jendea dantzan.
19:00, Sarobe. 7 euro.
Martxoak 15, igandea.



lazko zuhaitz-landaketa. AIURRI

ANDOAIN Zuhaitz-landaketa, Eguzkiren eskutik

Leitzarar bailaran, Muntoko parajeen. Norberak bere tresneria eraman dezake
baina antolatzaileek ere eramango dituzte. Bestalde, edatekoa eta hamaiketakoa
eskainiko diete hurbiltzen direnei.
09:00, Otieta. Martxoak 14, larunbata.

ERAKUSKETA

ANDOAIN Malen Agirre
"Marraztu gabeko irudiak",
paisaia emozionalak.
Ohiko ordutegia,
Bastero Kulturgunea.

DOKUMENTALA

ANDOAIN Itoiz
"Itoiz, udako sesioak". Solasaldia,
Larrait Zuazo zuzendariarekin.
18:30, Bastero Kulturgunea.
Martxoak 24, asteartea.

KOMUNITATEA

EGAPE DANTZA TALDEA URNIETA

XX. Urnieta Erromerian

Urnietako Dantza jaialdiaren
20. urteurrena ospatzen dugun
honetan, Egape DT-ko kideok
herritarrak bilduko dituen
Erromeria Eguna antolatzen
ari gara. Maiatzaren 23an
izango da dantza, musika eta
herriko kultur adierazpenak
ardatz hartuta. Azken 20
urteetan, jaialdia posible egin
duten dantzariak, musikariak,
elkarteak eta herritarrak
bildu nahi ditugu, belaunaldi
ezberdinen eta herriko
elkarleen parte-hartzea
sustatzeko. Erromeriaren
bidez herri-kohesioa indartu
nahi dugu, gazte zein haurrak
inplikatu, etorkizunera
begira jarraipena emanez.

Egitaraua:
11:00 Kalejira auzo
ezberdinetatik.
12:30 Erromeria: Dantzari
guztion txanda izango da
eta elkarrekin plaza
hartuko dugu.
14:00 Bazkaria (laster,
xeheatasun gehiago).
17:00 Plaza-dantzak, Joseba
Arretxe & Iruzta
taldearekin.
19:30 Dantzaldia, Itzal
taldearekin.
Inoiz Egape Dantza
Taldeen parte izan al zara?
Bada, zuretzako gonbidapen
berezia dugu! Eguerdiko
ekitaldi nagusian (12:30etan
hasita) inoiz EDTtik pasa

zaretenok izango zarete
protagonistak. Bost
koreografia mitiko elkarrekin
dantzatzera gonbidatu nahi
zaituztegu!



Entsegua
Parte hartzeko,
eman izena:
Lasai! Denok
egiteko moduko
dantzak dira, eta
entseguak egingo ditugu.
Lehen entsegua:
• Martxoak 28, larunbata.
• 10:00-12:00. Egape ikastola.
Anima zaitetz eta zatoz
plazara! Gora Egape Dantza
Taldea! Gora XX. Urnieta
Erromerian!




ZINEMA



ANDOAIN
BASTERO
Marty Supreme
Larunbata, 14.
19:30.
Igandea, 15. 19:30.
Astelehena, 16.
17:00, 19:30.

CHIRP, honey
hillseko
ikertzailea
Lar., 14. 17:00.
Ig., 15. 17:00.
Torrente
presidente
Martxoak 21-23



SINOPSISIA

Marty Supreme
Zuzendaria: Joshua Safdie. **Aktoreak:** Timothée Chalamet, Gwyneth Paltrow, Odessa A'zion, Abel Ferrara... **Herrialdea:** AEB. **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama, biopic-a. **Iraupena:** 149 m.



Timothée Chalameten berriena

Marty Reismanen bizitzan oinarrituriko filma da. Ping pongeko txapeldun bihurtu zen, baina aurretik Manhattanen apustueta murgildutakoa zen. Kirolean hasi zenetik 22 titulu garrantzitsu irabazi zituen. 67 urterekin lehiaketa nazional bat irabazi zuen. Oscar sarietan hautagai nagusietakoa da filma. Sari nagusiak eskuratzeko hautagaietakoa da: Film onena, gizonezko aktore onena, zuzendari onena, jatorriko gidoia eta argazkigintza onena...



Urnietako
udala